

# Homofobia iraganeko kontua da

**SEXU ESKUBIDEAK = GIZA ESKUBIDEAK**

## ERAKUSKETAREN GIDA

DATA: MARTXOA 2013

LEGE-GORDAILUA:

EGILEAK: INMACULADA MUJICA FLORES,  
ANA URETA BASAÑEZ, AMPARO VILLAR SAENZ

CONCEPTO Y COORDINACIÓN: ALDARTE



[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)

Jarraitu iezaguzu facebooken / twitteren / youtuben



[www.facebook.com/aldarte.zentroacentro](http://www.facebook.com/aldarte.zentroacentro)

[twitter.com/ALDARTE](https://twitter.com/ALDARTE)

[www.youtube.com/user/Aldarte1](http://www.youtube.com/user/Aldarte1)

Berastegi, 5 - 5. · 48001 Bilbao · Tfnoa.: 94 423 72 96



### LAGUNTZAILEAK:



# Aurkibidea

**Izenburua eta sarrera**

**Erakusketa nori zuzentzen zaion**

**Gomendio orokorra**

**Erakusketaren helburu orokorra**

**“Homofobia iraganeko kontua da.  
Sexu eskubideak = Giza eskubideak”  
erakusketaren edukiak**

# Sarrera

**“HOMOFOBIA IRAGANEKO KONTUA DA”**: erakusketa honen izenburuak esanahi bikoitza du.

- Alde batetik, **gaur egun homofobiak badu nolabaiteko ibilbide historikoa**, hau da, homofobiaren kontrako adierazpenak landu eta aldi berean hamaika hausnarketa plazaratu dira; homofobiaren kontrako ekintza xumeak egin egiten dira eta homofobiaren kontrako eguna ere bada (maiatzaren 17a)... Beraz, homofobia, gure gizarteetan desagerrarazi beharreko ekintza gisa agertzen ari da historian.
- Bestalde, legeetan eta gizartean eman diren aurrerapenak kontuan hartuta eta lege-berdintasuna behin lortuta, **homofobia iraganeko kontua dela** pentsatu dezakegu, alegia, ur-joana dela eta dagoeneko ez dagoela homofobiarik. Erakusketa honekin gogora ekarri nahi dugu gure gizarteetan homofobia oraindik badela eta modu bortitzean ez agertu arren, denbora gehienez iraun badirauela eta modu sotilean gure bizitzetan egon badagoela.

Erakusketa honekin homofobiaren kontra egiten ari den lana aditzera eman eta ikustarazi nahi dugu, eta LGTTBI kolektiboaren kontrako ekintza ankerrak salatu aldi berean.

Erakusketa honekin norbanakoengana modu apal eta errazean hurbildu nahi dugu, homofobiaren egoera ezagutzera emateko eta giza eta sexu eskubideak azaltzeko, gure egiten lagundu dezagun.

Honako gida hau **“Homofobia iraganeko kontua da. Sexu eskubideak = Giza eskubideak”** erakusketa hobeto ulertzeko euskarria da, eta berau osatzen duten 13 panelei buruzko azalpen zehatzak jasotzen ditu.

## Erakusketa nori zuzentzen zaion

Gazte eta helduei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak plazaratzeko tresna da **“HOMOFOBIA IRAGANEKO KONTUA DA. SEXU ESKUBIDEAK = GIZA ESKUBIDEAK”** erakusketa, eta eztabaida bidezko hausnarketak eta bestelako jarduerak bultzatzeko euskarria ere bada.

Nor(tzuk) d(ir)a materialaren erabiltzaile aproposa(k):

- Hezkuntza-komunitatea, bereziki ikasleekin honelako gaiak jorratu nahi dituzten irakasleak: sexu eta giza eskubidak, sexu aniztasunarekiko fobia eta LGTTBI (Lesbiana, Gay, Transexual, Transgenero, Bisexual, Intersexual) pertsonengana hurbiltzea.
- Auzo- eta Kultur-etxe, liburutegi, nagusien zentro, GKE eta administrazioetako profesionalak, errealitatea herritarrengana hurbildu eta sentsibilizazio lana egiteko honako materiala eskaini eta erabili nahi dutenak.
- Gizarte-ekintzetako profesionalak, LGTTBI biztanleen giza eta sexu eskubideen egoerari buruzko hausnarketa bultzatzeko lan-metodologia behar dutenak.

## Gomendio orokorra

Ikasleekin batera erakusketa bisitatzen duten irakasleek aldez aurretik gida irakurri beharko lukete, horrela, erakusketaren gai nagusiak, argudioen haria eta erakusketan erabilitako terminologia ezagutuko dute.

Aldi berean, bisita egiteko interesa duten taldeak lagunduko dituzten profesionaleri ere gomendio bera luzatzen diegu.

## Erakusketaren helburu orokorra

**“HOMOFOBIA IRAGANEKO KONTUA DA. SEXU ESKUBIDEAK = GIZA ESKUBIDEAK”** erakusketaren edukien azalpena eta gidoi irekia eskaini nahi dugu.



## Hausnarketa gakoak

1

**Homofobia iraganeko kontua da. Sexu eskubideak = Giza eskubideak,** erakusketa hainbat gai gako uztartzen ditu, hausnarketa-prozesua bultzatu nahian.

Erakusketa eta gidaren edukiekin batera diagnosi -eta analisi- lana biltzen da. Edukiok honako **hausnarketa gako**etan oinarritzen dira:

- Sexu eskubideak giza eskubide dira.
- Giza eta Sexu eskubideak unibertsalak dira, alegia, batak zein besteak garrantzi bera dutela, eta ez daudela kultur tradizioen edo sinesmenen mende.
- Sexu aniztasunarekiko eta LGTTBlenganako fobia munduan zehar zabalduen dagoen gorrotoetako bat da.
- Zenbait herrialdetan, oraindik ere, LGTTBlak jazarri eta hil egiten dituzte.
- LGTTBlei giza eskubide funtsezkoenak-bizitzeko eta aske izateko eskubideak, ukatuz jarraitzen duten estatuak zein diren esan eta salatu egin behar ditugu.
- Gero eta herrialde gehiagok egiten dituzte bereizkeriaren aurkako legeak partaideen adostasun osoz burutzen diren sexu jardueren jazarpen orori kontra egiteko, nahiz eta baden oraindik zer aurreratua.
- LGTTBlak jazartzean eta haiei eraso egitean gizatasuna galtzen dugu.

Gai gako hauen bidez errealitatea aztertzen da, gai hauen gainean aritu eta proposamen argia eta zehatza garatzen du gidak berak, eta horren bidez, erakusketa osatzen duten zati bakoitza egituratzen da.



## Adierazpen garrantzitsua

2

Bigarren panel honetan, **Valentzian 1997an egin zen Sexologiari buruzko Munduko 13. Kongresuan** aipatutako esaldia jasotzen dugu:

**“1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala bezalaxe, sexu eskubideak ere munduan lortu ditugun aurrerapenen artean dira. Gizarte guztiek onartu, sustatu, aintzakotzat hartu eta zabaldu behar dituzte sexu eskubideak, eskura dituzten bitarteko guztiak baliatuz.”**

Erabakiak hartzeko askatasuna eta bizitzan zer izan nahi dugun eta zer egin nahi dugun aukeratzeko eskubidea gure kultura demokratikoaren alderdi garrantzitsu bat da, pertsona oroaren eskura egon behar duen alderdia.



# 11 sexu eskubideak

3

Sexualitatea gure nortasunaren atal oinarrikoa da. Sexualitatearen garapen osoa, oinarriko giza beharren asebetetzearen arabera (ukituak izan eta ukitzeko beharra, intimitatea, plazera, gozotasuna eta maitasuna).

Sexu eskubideak giza eskubide unibertsalak dira eta gizaki guztion berezko askatasunean, duintasunean eta berdintasunean oinarritzen dira. Eta osasuna oinarriko giza eskubidea denez, sexu osasuna ere funtsezko giza eskubidea izan bada, norbanakoon eta gizarte osoaren ongizaterako behar-beharrezkoa baita.

Gizakien eta gizartearen sexualitatea modu osasuntsuan garatu ahal izateko, gizarte orok baliabide guztien bitartez, honako **sexu eskubideak** aitortu, errespetatu, gauzatu, bultzatu eta babestu behar dituzte.

- 1. Sexu askatasunerako eskubidea:** norbanakoen sexualitatea bete-betean adierazteko aukera ezartzen du, eta bizitzako edozein garai eta egoeratan eman daitezkeen indarkeria, esplotazioa eta sexu abusu mota guztiak bazter uzten ditu.
- 2. Gorputzaren sexu autonomia, osotasun eta segurtasunerako eskubidea:** Norberaren bizitza sexualari buruzko erabaki beregainak hartzeko gaitasuna barne hartzen du, etika pertsonal eta sozialaren testuinguruan; -torturatu gabeko, mutilaziorik gabeko edota inolako indarkeriarik gabeko- gure gorputzen gaineko kontrola izan eta gorputzez gozatzeko gaitasuna ere kontuan hartzen dira.
- 3. Sexu pribatutasunerako eskubidea:** alor intimoan hartutako erabakiak eta portaerak zilegitzat hartzen ditu, besteen sexu eskubideak eragozten ez badituzte.
- 4. Sexu berdintasunerako eskubidea:** sexu, genero, sexu-gustu, adin, gizarte-klase, talde etniko, erlijio edota muga fisiko/mentalarekin lotutako edozein bereizkeriari kontrajartzen zaie.
- 5. Sexu plazererako eskubidea:** sexuaz gozatzeko eta atsegina hartzeko eskumena da (baita autoerotismoa ere), ongizate fisiko, intelektual eta espiritualaren iturri den plazera.
- 6. Sexu emozioak adierazteko eskubidea:** plazer erotiko edota sexu-ekintza soiletatik haratago doa, eta sexualitatea emozioen eta afektuen bidez ere adierazi daitekeela aitortzen du, kariño, gozotasun eta maitasunaren bidez, kasu.
- 7. Sexu identitatearen zioz elkartzeko eskubidea:** ezkontzeko ala ez ezkontzeko, banatzeko eta edozein sexu-elkartze arduratsua osatzeko aukera eskaintzen du.
- 8. Ugalketari buruzko erabakiak askatasunez eta arduraz hartzeko eskubidea:** seme-alabak izan ala ez, seme-alaben kopurua eta bakoitzaren arteko denbora-tarteak erabakitzeko eskubidea da, baita ugaltze-metodoak baliatzeko eskubidea ere.
- 9. Ezagutza zientifikoan oinarritutako informaziorako eskubidea:** sexu informazioa prozedura zientifiko eta etikoen bidez sortu behar da, eta modu egokian zabaldu gizarte osoarengana heldu dadin.
- 10. Sexu heziketa integralerako eskubidea:** sexu heziketa bizitza osoan zehar irakatsi behar da, jaiotzetik beretik zahartzarora arte, eta gizarte erakunde guztiek parte hartu beharko lukete.
- 11. Sexu osasunerako arreta jasotzeko eskubidea:** sexu arazo, kezka, gaixotasun eta desoreka guztien prebentzioa eta tratamendua kontuan hartu behar da.

## SEXU ESKUBIDEAK OINARRIZKO GIZA ESKUBIDEAK DIRA.

Valentzian 1997an egin zen Sexologiari buruzko Munduko XIII. Kongresuan egindako adierazpena. Sexologiaren Mundu Elkartearen (WAS) Batzar Nagusiak gainbegiratua eta onartua 1999ko abuztuaren 26an Hong Kong-en (Txinako Herri-Errepublikan) egin zen Sexologiari buruzko Munduko XV. Kongresuan.



## Sexu askatasunerako eskubidea

4

Sexu askatasunak norbanakoen sexualitatea bete-betean adierazteko aukera ezartzen du. Baina bizitzako edozein garai eta egoeratan eman daitezkeen indarkeria, esplotazioa eta sexu abusu mota guztiak bazter uzten ditu.

**LGTTBIen ESKUBIDEEN EGOERA MUNDUAN, 1998tik 2011ra** (ikus paneleko grafikoa):

### **Grafikoari buruzko hausnarketak:**

- 1.** Urte hauetan LGTTBI eskubideek bilakaera izan dute.
- 2.** Gero eta herrialde gehiagotan homosexualitatea eta lesbianismoa legezkoak dira.
- 3.** Homosexualei heriotza-zigorra ezartzen dieten herrialdeak gero eta gutxiago dira.



## Sexu emozioak adierazteko eskubidea

5

Sexu adierazpena plazer erotiko edota sexu-ekintza soiletatik haratago doa. Norbanako guztiek sexualitatea komunikazioaren, ukipenaren, adierazpen emozionalaren eta maitasunaren bidez adierazteko eskubidea dauka.

INJUVEk 2011ko maiatzean egindako “Jóvenes y diversidad” inkestan jasotako **HAINBAT DATU KONTUAN HARTUKO DITUGU**. Gazteak eta aniztasun afektibo-sexualari buruzko azterlan kualitatiboa da. Nerabe espainiarrek aniztasun afektibo-sexualarekiko eta LGTB pertsonerekiko (Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualekiko) dituzten irudi, iritzi eta jarreretara hurbiltzea da ikerketaren helburua.

- Gazteen %53ren ustez, LGTB batek ezin du lantokian naturaltasunez hitz egin bere sexu-orientazioaz, eta %50ek gauza bera uste du ikastetxeari dagokionez.
- la %80k entzun ditu LGTBen kontrako iritziak, isekak edo irainak, bai eta haien imitazioak ikusi ere.



## Sexu identitatearen zioz elkartzeko eskubidea

6

### LGTB ASOZIAZIONISMOA EUSKADIN. ZENBAIT DATA:

- 1977:** EHGAM (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) sortu zen.
- 1979:** ESAM (Emakumearen Sexu askapenerako Mugimendua) sortu zen.
- 1980:** Gipuzkoako Emakumeen Asanbladan, lesbiana feministen taldea sortu zen.
- 1982:** Nafarroako Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zen.
- 1983:** Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zen.
- 1985:** Lesbianen lehenengo jardunaldiak egin ziren Zamalbiden (Gipuzkoa).
- 1990:** LUMATZA (Nafarroako Lesbianen Kolektiboa) sortu zen.
- 1994:** ALDARTE (Gay, lesbiana eta transexualen arretarako zentroa) sortu zen.
- 1997:** GEHITU (Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarte) sortu zen Donostian.
- 1998-2012:** Zenbait elkarte sortu ziren, besteak beste: Transexualia, Bizigay, Hegoak, Borrokarako Gay, Medeak, MasMedeak, Euskal hartzak, Errespetuz...

### NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN HAINBAT ADIERAZPEN:

1995eko Beijingeko Emakumeen IV. Munduko Biltzarrean lortu zen, lehenengo aldiz, NBEk sexu orientazioari buruz eztabaidatzea.

1997ko abuztuan, Valentzian egin zen Sexologiari buruzko 13. Munduko Kongresuan, sexu eskubideen gutuna aldarrikatu zen, bai eta sexualitatea aske adierazteko eskubidea aitortu ere.

1997ko urrian, Europar Batasuneko estatu kideek sexu orientazioan oinarritutako diskriminazio ororen aurka borrokatzeko gomendioa egin zuten Amsterdameko Itunean.

2006an, Indonesiako Yogyakartaeko Printzipioetan, giza eskubideetan aditu direnek estatuek sexu eskubideak ezarri behar dituztela adierazi zuten. Dokumentu honetan hainbat lege-oinarri jasotzen dira, sexu orientazio eta genero-identitateari buruz giza eskubideetan oinarritutako nazioarteko zuzenbidea ezartzeko xedearekin. Testuak funtsezko jarraibideak ezarri ditu Nazio Batuek eta Estatuek aurrera egin dezaten LGBT pertsonen Giza Eskubideak bermatzeko bidean.



## Sexu berdintasunerako eskubidea

7

**2005eko apirilaren 22an homosexualen arteko ezkontzak Kongresuaren babesa lortu du: Legeak adoptatzeko eskubidea onartu die sexu bereko bikoteei.**

Bertaratutako diputatuen %57ren babesa lortu zuen legeak (aurkako bozka eman zuten PPkoek bai eta UDCKo hiru diputatuek ere).

2012ko ekainaren 28an Transexualitateari buruzko euskal legea onetsi zen Eusko Legebiltzarrean.



## Sexu heziketa integralerako eskubidea

8

Zenbait eskola ikerketetako emaitzek adierazten dute Kanada eta AEBko gazte heterosexualen %1,1 ahalegintzen dela bere buruaz beste egiten 20 urte betetzen dituztenean. LGTBen artean, portzentaje hori %22koa da. Zeelanda Berrian eta Irlandan, %32ra igotzen da, eta Norvegian, %35era. Azterlan guztiek nabarmentzen dute LGTB gazteen suizidio saiakera kopuruaren handia.

Eskoletan, joera homosexual, lesbiko nahiz transexuala dutenek edo itxuraz hala direla diruditenek jasaten dituzte abusu eta eraso gehien. Irakasleek prestatuta egon beharko lukete LGTB nerabe eta gazteei eskola-arloan laguntza emateko.

Esperientziak erakutsi digu eskola giroan ulermena, laguntza eta errespetua jasotzen duten LGTB nerabe eta gazteak oreka emozionala duten helduak izatera iristen direla, eta suizidioaren mamua uxatzen dutela.



## Sexu osasunerako arreta jasotzeko eskubidea

9

1990ean OMEk homosexualitatea adimen-gaixotasunen zerrendatik kendu zuenetik, apaldu egin da gay eta lesbianak adimen-gaixoak direlako gizartearen ustea.

**Hala ere, transexualitateak adimen-patologiaren psikiatria-zerrendetan jarraitzen du,** eta horrek berebiziko eragina du transexualengan, beren bizi-erperientzia guztiak etengabe psikiatrizatu egiten baitituzte.

**GIB-HIES DELA-ETA, GIB-AK KUTSATUTAKO 2.700 ATZERRITAR 2012KO ABENDUAN BOTIKARIK GABE GERATUKO DELA OHARTARAZI DU GESIDAK**

Ez dago sexu-osasuna lortzerik, pertsonak ez badaude sexuagatiko abusu, estigma, bereizkeria eta bortizkerietatik libre. Sexu-plazera osasunaren eta ongizatearen osagai bat gehiago dela onartu behar du gizarteak.



## LGTTBlen eskubideen bilakaera

10

- 1978** Konstituzio berriak berdintasun formala dakar, izan ere, 14. artikuluan ez dela sexua, arraza, erlijioa edo beste "edozein egoera sozialengatiko" diskriminaziorik onartuko aipatzen du.
- 1979** Arriskugarritasun Sozialaren Legea aldatzen da, "homosexualitate ekintzen" aipamena kentzeko. Oraindik ere "eskandalu publikoa" badago, eta gay, lesbiana eta trans pertsonak jazartzeko erabiltzen da.
- 1983** Sexu-berresleipenaren operazioa despenalizatzen da.
- 1985** Homosexualitatea delitu bezala Zigor Kode Militarretik kentzen da.
- 1988** "Eskandalu Publikoa" Zigor Kodetik kentzen da.
- 1994** Gasteizen izatezko bikoteen lehenengo erregistroa sortzen da.
- 1994** Hiri Errentamenduen Legeari esker, HEL, sexu joera kontuan hartu gabe, izatezko bikoteak lehenengo aldiz onartzen dira.
- 1995** Zigor Kode berria sortzen da, homofobia behin-betiko zigortzen du, eta politika publikoetatik edozein elementu diskriminatzaile kentzen du.
- 1995** Indarkeriazko eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimentzako Laguntza eta Diru-laguntzen Legeak izatezko bikoteak berriro ere onartu egiten ditu, beren sexu-joera kontuan hartu gabe.
- 1998** Parlamentu andaluziarrak Osasun-zerbitzu andaluziarrak eskaintzen duen zerbitzuen gutunean tratamendu transexuala barne hartzea onesten du.
- 1999** Genero Identitatearen Arazoen Unitatea deitutako lehenengo zerbitzu espezializatua eta diziiplina anitzekoa sortzen da Malagako Carlos Haya ospitalean.
- 2000** Nafarroan izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago.
- 2003** Euskadin izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago.
- 2005** Diputatuen Kongresuak homosexualen ezkontzaren legea onesten du. Beste gauza batzuen artean bikotekidearen seme-alabak adoptatzeko eskubidea barne hartzen du.
- 2007** Diputatuen Kongresuak Genero Identitatearen Legea onesten du. Lege honi esker, pertsona transexualek izena aldatu dezakete erregistro zibilean, sexu organoak operatu beharrik gabe.
- 2009** Generoaren Unitatea sortu zen Gurutzetako ospitalean, transexualei arreta emateko.
- 2010** Legebiltzarkide talde guztiak onartu zuten 2010eko irailaren 30ean "Transexualitatea adimengaitasun gisa despatologizatzeko Legezko Ez den Proposamena", eta han, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaien behar diren zuzumenak bidera ditzala OMEk transexualitatea adimen-gaitasun zerrendatik ken dezan.
- 2012** Eusko Legebiltzarrak Genero identitateagatik ez baztertzeko legea onartu zuen.



## homofobia iraganeko kontua al da?

11

### Iraganeko kontua al da LGTTBren kolektiboarenganako fobia?

**GURE HERRIALDEAN, LEGE eta GIZARTE ALORREAN** horren aldaketa handiak gertatu dira ezen zail baita homofobia, lesbofobia eta transfobia antzematea, eta jadanik horrelakorik ez dela ere pentsaraz diezagukete, oso gutxitan egoten baitira horrengatiko eraso edo erailketak.

GURE GIZARTEAN “dena lortua dugula” uste dugunez, garrantzia kentzen diegu oraindik ere indarra duten sexu aniztasunarekiko aurreiritzien eraginei: askotan, oso modu sotilean agertzen zaizkigulako eta, batzuetan, ezin antzemateko moduan, baita biktima direnen begietan ere.

#### **HORI DUGU EUSKADIKO EGOERA, BAINA...**

MUNDUKO LEKU ASKOTAN OSO DA DESBERDINA

#### **Hainbat adibide:**

- Daniel Zamudio, martxoaren 2012an Txilen eraildako gay gaztea.
- Noxolo Nogwaza, 24 urteko lesbiana, 2011n Hegoafrikan eraila.
- Rosa Pazos, transexuala, 2008an Galizian eraila.
- David Kato, 2011n Ugandan eraildako LGTB aktibista.



## Errespetua

12

### **TOLERANTZIATIK ERRESPETURA, bainarik gabe**

#### **Oraindik ere entzuten ditugu honelakoak:**

Nik aintzako ditut gay, lesbiana eta transexualak, baina...

Gay eta lesbianen seme-alabek lastima ematen didate: iseka egingo diete, eta seinalatu egingo dituzte; beti izango dute zer edo zeren falta.

Ez zait ondo iruditzen transexualei ebakuntzak osasun publikoak egitea.

Ez dut gogoko zuek horren promiskuo izatea.

Ez dut gogoko GAY eta LESBIANAK etengabe jardutea telebistan "EMAZTEAK hau eta hau egiten du", "SENARRAK dio..." eta gisakoak esaten.

Ez dut gogoko zuek kalean elkarri musuka aritzea.

Uste dut gay eta lesbianek ez luketela adoptatu beharko.

#### **HORRELA PENTSATZEN DUEN JENDEAK EZ DU ERRESPETURIK.**

**Errespetua baldintzarik gabea da, eta denok  
berdinak garelako uste osoan oinarriturik behar du.**



## Ekiozu eta mugiri sexu aniztasunaren alde

13

**Ahalegin handiagoa egin behar da sexu eskubideak babesteko.**

**Gorrotoak eragindako krimenak salatu** egin behar dira, eta horiek **pairatzen dituztenen alde jardun**, asko baitira oraindik ere nahi duten sexualitatea eta sentitzen duten genero identitatea bete-betean bizitzerik ez dutenak.

Giza eta sexu eskubideen defentsaren **alde jardutea eta horretan sakontzea** beti da **INBERTSIO** egokia.